

Urratsez urrats

Konfinamendu arintzearen hastapen edo "zero" fasean dago Lasarte-Oria, eta, ondo bidean, lehenengoari ekingo dio datorren astelehenean / 2

Kultura hizpide

Solasaldi birtuala egin du TXINTXARRIK Lasarte-Oriako hainbat kultur sortzailerekin / 8-9

"Egoera zaurgarrian" dauden familiei laguntzeko, lerro bat martxan jarri du udalak / 5

Kirola eta Covid-19a Lasarte-Orian: herriko elkarteekin errepasoa egiten ari gara; hiru artikulu ikusgai / 10-12

Datorren astean maiatzaren 15ean
TXINTXARRI zure buzoian jasoko duzu

txintxarri





Aste honetan ateak zabaldu dituzte herriko merkataritxikiek aldeaz aurreko hitzorduarekin. TXINTXARRI

Normaltasun berrira bidean

Bost faseetan bereiztutako prozesua da itxialdiaren arintzea. Aurreneko urratsak kalera irteteko aukera eta jarduera ekonomikoak berreskuratzen hastea izan dira. Erritmoa pandemiak erabakiko du, baina, ondo bidean, astehenean lehen fasea hasiko da.

Maitane Aldanondo

"Berria" bada, zaila da hartara bueltatzea, ez zegoenera nola itzuli? "Normaltasun" hitzarekin antzera. Gelak, maskarak, eskularruak elkarren ondotik gertuegi ez igarotzeko tentuz ibiltzea... Duela aste batzuk arte horiek ez ziren gehiengoaren bizitzaren parte. Arrotzegi ez sentitzeko izen hori jarri badiote ere, bestelako eguneroko batera ohitu beharko dute herritarrek; martxora arte ezagututakora noiz bueltatuko diren jakin gabe, ezta halakorik izango den ere.

Berandu baino lehen prest izango duten txertoak koronabirusaren mehatxua mugatuko du, eta gerora etorriko den sendagaiak, beldurra ezeztatuko du; baina igarotako asteek norberaren baitan eta bestetik harremanean utzitako orbana garbitzea, beste kontu

bat da. Gutzika, dena "lehengora" itzuliko da, baina ez da berdina izango; ezohikoa arrunt.

Moldatzen joateko bost faseko arintzea diseinatu du Espainiako gobernuak. Lurraldeka egingo dute, asimetrikoki eta atzera bueltatzeko aukerarekin. Bakoitzak, gutxienez, bi asteko iraupena izango du; beraz, aurreikuspenak betez gero, ekaina amaieran osatuko da prozesua.

Asteburutik prestaketetan

Hastepenekoak, "zero" delakoak, etxetik irteteko askatasun pixka

KALERA IRTETEKO ORDUTEGIA, PRINTZIPIOZ, BERE HORRETAN MANTENDUKO DUTE

bat ekarri du. Berrogeialdi luzearen ondoren, gogotsu irten ziren lasarteoriatarak kalera asteburuan. Adinaren eta beharren arabera zehaztutako ordutegian etxe inguruan paseoan ibili edo kirola egin ahal izan zuten herriko mugen barruan.

Astehenean, berriz, 400 metro koadroko azalera arteko saltoki eta jarduera profesionalen txanda izan zen. Ateak zabaltzea izan dute, aurretiaz hitzordua egin, profesional bakoitzeko bezero bakarrarekin eta segurtasun neurri ugari beteta. Ildo beretik, ostalariek janaria etxera eramateaz gain, lokalean bertan jasotzeko ere sal dezakete, ez ordea, bertan jateko. Bi kasuetan, gainera, 65 urtetik gorakoentzat ordutegi berezia dute, haiek baimenduta duten irteera tartean.

Egunotan hutsik dauden lokaletan obrak egitea baimendu

dute, baita azoka txikiak % 25eko edukierarekin, edo hiletetara joatea ere; gehienez, hamar lagun gune itxian bada, hamabost, atari zabalean. Aurrerantzean. gainera, garraio publikoan maskara erabili beharko da.

Lehen faserako prest?

Lurralde bakoitzak hainbat datu aurkeztu beharko ditu fase aldaketa eskatzeko. Aditu talde batek proposamena aztertu eta erkidegoko agintariekin adostuko du zer egin. Datozen orduetan jakinaraziko dute erabakia, baina aurreikuspenak betez gero, astehenean, hilak 11, lehen fasean sartuko da Gipuzkoa.

Zer esan nahi du horrek? Jarduera ekonomikoak edukiera mugekin irekitzea. Saltokietan ez da hitzordurik beharko, baina edukiera % 30era mugatu beharko dute eta 65 urtetik gorakoentzat ordutegia mantendu. Dendetako aldagelak banaka erabiliko beharko dira eta bakoitzaren ondoren desinfektatu, probatutako arroparekin batera. Segurtasun tartea mantentzerik ez bada, maskara derrigorrezkoa izango da langileentzat nahiz bezeroentzat.

Era berean, terrazak erabilgarri izango dira, edukiera erdiarekin, mahai artean bi metroko aldea utzita eta erabilera bakoitzaren ondoren desinfektatuta. Gainera, ahozapiak, zotzak eta antzekoak kenduko dituzte.

Hotelak eta ostatuak ere martxan jar daitezke, baina gune komunak erabili gabe. Mezak eta gurtza ekimenak burutuko dira, baina %30eko edukierarekin; museoeak, berriz, heren batera murriztu beharko dute; baita kultur ikuskizunak ere, beti ere, 30 ikus-entzule arte areto itxian eta 200 atari zabalean.

Kalerako gogoz daudenei oharra. Ordutegi mugak, printzipioz, bere horretan mantenduko dira Alarma Egoerak iraun artean—oraingoz, maiatzaren 24 arte—. Hala dio, behintzat, arauak. Edonola, aldatzeko eskatu dute hainbat erkidegok eta datozen orduetan jakinaraziko dute erabakia.

LEHEN FASEAN EDUKIERA MUGEKIN IREKI AHALKO DITUZTE JARDUERA EKONOMIKOAK

Hori bai, hamar lagun arteko bilerak egin daitezke, etxean edo atari zabalean. Haurrek parte har dezakete, baina ez sintomak dituztenek edo zaurgarriak direnek. Autoan, berriz, ilara bakoitzeko bi lagunek bidaia dezakete, maskara erabilia eta distantzia gordeta.

Pandemiaren hedatzea, gako

Hurrengo hiru faseetan lasaitzen joango dira neurriak eta askatasunetan sakonduko dute. Esaterako, Hezkuntza Sailak jada adierazi du maiatzaren 18an hasita aurrez aurreko eskolak berreskuratu nahi dituela. Hori, ordea, arintzea bera bezala, pandemiaren hedapenak baldintzatuko du. Izan ere, fase batetik bestera igarotzea ez da egutegi kontua, irizpideena, baizik. Lau arlotako adierazleei erraparatuko diete:

- Osasun zerbitzuaren gaitasun estrategikoa: Lehen arreta, ospitaleen egoera eta erabilgarri dauden ZIU oheak.

- Egoera epidemiologikoa: diagnosiak, kutsatze tasa eta beste adierazle batzuk.

- Datu sozioekonomikoen eta mugikortasun datuen ebaluaketa.

- Lantoki, saltoki eta garraiobide publikoetan talde babes neurriak bestetzea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionean, positiboak ugaritzen ari dira azken asteetan, 16.959 zeuden, atzo. Hein batean, PCRekin batera, Osakidetza test azkarrak egiten hasi delako da. Positiboak behin zenbatu arren, batetik zein bestetik lortutako emaitzak elkarrekin batzen dituzte datuetan, nahiz eta gauza bera ez neurtu.

Test azkarrek edo serologikoeak, antigorputzak atzematen dituzte eta gainditutako infekzioa adieraz dezakete; PCR probek, aldiz, karga birikoa neurtzen dute, alegia, gorputzean birusik baden. Horrela, pandemiaren hedatzea hobe irudika daiteke, baina jada ezin da jakin unean kutsatuta dauden edo gaingitu duten.

Batera zein bestera, koronabirusak eragindako lasarteoriatarak gehitzen joan dira azken asteetan. Maiatzeko zubian, esaterako, eguneko bina kasu ezagutarazi zituzten, 42ra helduz. Hala mantendu zen atzo arte, egiaztapen berri bat gehitu baitzen. Hortaz, 43 dira eragindakoak, 174, Beterri-Buruntzan.

Udaltopek leiho birtuala irekiko dio lan munduari

Udaletako Euskara Zebritzuen Topaketa ostegunean burutuko dute, online. COVID-19aren krisiak egitaraua eta moldea aldatzera behartu ditu antolatzaileak. Oraingoan, eremu sozioekonomikoaren euskalduntzea izango dute aztergai

Txintxarri

Eremu sozioekonomikoan jarrita zuen fokua Udaletako Euskara Zebritzuen Topaketak (Udaltop), izan ere, alor horretan euskararen erabilera pizteko gakoak ematea baitzen hamabigarren edizioaren xede nagusia. COVID-19ak eragindako osasun larrialdiak, ordea, jardunaldia moldatzera behartu du Antolamendu Batzordea. Hala, goiz bakarrera mugatu eta online egingo dute *Udaltop etxetik: ireki leiho bat lan munduari* jardunaldia. Ostegunean, maiatzak 14, www.udaltop.eus webgunearen bidez jarraitzea izango da.

Moldaketak moldaketa, "Udaltopeko izaera berritzaile eta ausarta berretsiz" egitarau "erakargarria" osatu dutela eta urteroko zitari eutsi diotela nabarmendu dute antolatzaileak. Iaz bezala, Lasarte-Oriako Udalak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiek, Euskal Hirigune Elkargoak, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak osatu dute Antolamendu Batzordea.

Gogoetarako proposamenak

Goiz osoko egitarauari 10:00etan ekingo dio Jon Sarasuak, *Apustu baterako arrazoibideak eta ohar batzuk* hitzaldiarekin. Bertan, eremu sozioekonomikoan



Aurrez aurre ez bada ere, gogoeta partekatua egingo dute aurten ere. TXINTXARRI

euskararen erabilera sustatzeko beharrez mintzatuko da; eta jarraian, Agirre Lehendakaria Centerreko Leire Canciok bere hausnarketa plazaratuko du.

H o g e i m i n u t u k o atsedenaldiaren ondoren, Pilar Kalzadak gidatutako *Euskara eremu sozioekonomikoan: egingo dugu apustu? Zer eta nola egin beharko genuke?* mahai inguruan parte hartuko dute, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politiketako zuzendari Bingen Zupiriak, Fagor kooperatibako Gestio Sozialeko ordezkari Leire Okarantzak eta

Topaguneko lehendakari Kike Amonarrirek. Ondoren, ikusleen galderak erantzuneko dituzte.

Amaitzeko, krisi egoeran euskara tresna gisa erabilita jarduera interesgarriak gauzatzen ari diren enpresen testigantzak bilduko dituzte.

Jardunaldia doakoa da, baina aurrez izena ematea behar da webguneako galdetegia beteta. Astearte da horretarako azken eguna. Jada, 300 lagunek eman dute izena, orain arteko kopururik altuena. Saioa amaituta, edukiak eskuragarri jarriko dituzte bertan.



NEURE KABUZ
MAIDER GALARDI

Nobia*

*Def.: Normaltasun Berrirako Irizpideen Araudia.

Adb.: Arauak ongi betetzeko, nobia irakurri dut haurrarekin kalera irten aurretik / Badakit goiko bizilagunak ez duela nobia errespetatzen neska berri batekin sartu delako etxean. / Nobia aplikatuta kanporatu dute Marokora portala garbitzen zigun andrea.

0 Faserako araubide berriak jarri dituzte martxan instituzioek, heldu zaigu eskutitza etxera. Normaltasun berria heltzear da, eta komeni da hiritar guztiok* jarraibide batzuk segitzea. Diotenez arriskua dago pandemia itzuli dadin. Balkoietako polizia lanari esker osatu dituzte zerrenda beltzak. Ez dut nahi lasarteoriatarrik arrisku horretan. Baina garrantzitsuagoa dena: ez dut beste bi hilabetez etxean gelditu nahi –ados; telebistarekin eta Internetarekin, goxatzen nauen pisukidearekin, balkoi handi xamarrarekin eta lanarekin. Baina uda dator eta presa dut hondartza zapaltzeko-. Ez zaizue zuei NOBIA heldu etxera? Lasai, lau puntutan laburtuko dizuet:

1.-Familia unitate* bereko helduak irten daitezke binaka kalera. Kontuan hartuta goiz eta gau partean izan ezik, gainontzekoan adinekoak eta haurrak irten daitezkeela, pentsatzekoa da familia unitate berdineko pare hori bikotea dela, eta, ziurrenera, monogamoa.

1.1-Dagoeneko ikusi dira salbuespenak. Klandestinitatearen mugan daude azken bi hilabetetan ikusi ez diren bikote heteroen kasuak. Orden sozialak ez ikusiarena egiten du, beraz, talde horretakoa bazara lasai egon zaitezke.

2.-Telelana egin ezin badezakezue, joan zaitezke lantokira, beharrezko segurtasun neurriak hartuta. Horretarako laneko justifikantea ala Eusko Jaurlaritzaren baimena beharko da oraindik. Horrek esan nahi du derrigorrean izan behar duzula kontratua, eta pentsa liteke beltzean ordaindutako lanak bertan behera gelditu direla. Alegia: langabeziaren datuak uste baino altuagoak dira, eta paperak legezko ez dituztenek nekez mantenduko dute lana.

3.-Adinekoek beren odol-familiarekin izan dezakete kontaktua soilik. Edo, askora jota, haiek zaintzen dituzten jatorri zehaztugabeko andreekin. Horrek esan nahi du orain arte kobratu gabe egon diren andre horiek kolpean itzuli behar izan dutela 24/7 lanaldira. Alegia, inork ez ditu zaintzaile horiek ikusi kalean, eta inork ez ditu ikusiko. Bestalde, horrek esan nahi du alargunen kuadrillak desegin direla.

4.-Datorren astelehenean hasiko den 1 faserako baimendu dituzte etxeetako bilguneak. Askora jota, 10 lagun. Beraz:

1.-Etxe bat eduki behar duzu.

2.- Emanzipatuta egon behar zara kuadrillakoak gonbidatzeko.

3.- Ezin dira 10 pertsona elkartu Xirimirin, esate baterako, lokala husteko edo Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiaren exekuzioari aurre nola egin erabakitzeke —ezta Elebeltzen edo guno okupatu batean ere—.

4- Hilaren 23an amaituko da Ramadam-a. Ezingo da ohiturazkoa den jai oparo eta lagunartekorik egin.

NOBIA betetzen duenetarikoa bazara, zortekoa zu. Diote gizakikok erresilentziarako gaitasun handia dugula, eta ziur berehala ohitzen zarela normaltasun berrira. Ez bazara, asko sentitzen dut: klandestino izaten segituko duzu, eta zerrenda beltzean.

Hizkuntza ohiturei astindua eman diete, etxetik

Udazkenean gauzatuko dituzten Euskararen X. Maratoia eta Euskaraldia motorrak berotzen hasi dira

Txintxarri

Udazkenean euskara protagonista izango da Lasarte-Orian. Urriaren 16tik 18ra Euskararen X. Maratoia ospatuko dute eta azaroaren 20tik abenduaren 4ra II. Euskaraldia. Oraindik asteak

falta dira horretarako, baina hasiak dira haiei lotutako jarduerak. Itxialdiak, ordea, beste modu batera egitera behartu ditu bi egitasmoak.

Maratoiak *Hamar atzamar* abestia aurkeztu du. Zortzikoteak

norberak bere etxean grabatutako bideo batean ezagutzera eman zituen kanta eta dantza. Hori bat, mozorrotuta egin zutenek, oraindik kideen nortasuna ezezaguna da. Bideo horretan dei egin zieten lasarteoriatarrei igande iluntzean balkoi eta leihoetan dantzatzera. Herritar askok erantzun zuten, batzuek kalea nahiago izan zuten ikasitako koreografia egiteko.


Egun horretan bertan amaitu zen *Etxealditik Euskaraldira* ekimena. Apirilaren 20tik

maiatzaren 3 arte, bi astez luzatu da etxean eta etxetik d i t u g u n h a r r e m a n komunikatiboetan euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan egiteko gonbita.

Hamar bideo laburren bidez, batetik, herritarrek etxeokokin dituzten hizkuntza-ohiturei buruzko gogoeta sustatu nahi izan dute; eta bestetik, euskararen erabilera bultzatu horretarako hainbat bitarteko eskainita. Iritziak nahiz bizipenak sare sozialetan



Zabaletan dantzatu zuten kanta. TXINTXARRI



Udalbatza kideak telematikoki egin zuten bilkura. Batzarkide batzuei arraroa egin zitzaion pantailara hitz egin beharra. TXINTXARRI

Egoerari aurre egiteko erabakiak

Lasarte-Oriako udalbatzak ezohiko bilkura egin du apirilaren 30ean eta alerta-egoeraren ondorio ekonomikoari aurre egiteko laguntzak eta udal gobernuak "beharrezkotzat" dituen proiektuetarako diru partidak zehaztu dituzte

Nerea Eizagirre

Lasarte-Oriako udalbatzarrak bere lehen batzar telematikoa egin zuen apirilaren 30ean. Antolakuntzarako azalpen batzuk eman eta soinu arazoak medio, besteak beste, Lasarte-Oriako udalbatzak 2019. urteko soberakinekin hainbat proiekturako dirua gordetzea onartu zen, PSE-EEren aldeko bozkekin. Gainerako udal taldeek abstentziora jo zuten.

Lasarte-Oriako Gobernu taldeak 2019. urteko soberakinaren 2,5 milioi erabiliko ditu hainbat proiektu gauzatzeko. Alkateak azaldu duenez, COVID-19a dela-eta, 2020. urteko aurrekontuak, "guda" aurrekontuak izango dira. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izandako bileran, funts forala %20-25 jaitsiko dela iragatzen duela jakitera eman zien. Horregatik, aurrekontuetan gastu korrantea jaisten saiatzen ari da udal gobernu taldea. Gainera,

udalaren sarreran beherakada aurreikusten da eta eskaini ez diren zerbitzuen kuoten itzulera ere kontuan hartu behar dituzte.

Horren guztiaren ondorioz, inbertsiorik egiteko ez litzateke dirurik egongo eta 2019. urteko soberakinari esker, udal gobernuaren ustez beharrezkoak diren hainbat proiektu aurrera eramanez ahalko dira.

Ez dute, ordea, soberakin osoa erabiliko. 2019. urtean, 6 milioi euroko soberakina izan zen-eta. Milioi bat aurreko legealdietatik pendiente geratzen diren ordainketak egiteko erabiliko da eta 2,5 milioi euroko poltsa utziko da, sarreren jaitsierek sortu dituzketen ezbeharrei aurre egiteko.

Alkateak batzarkideei azaldu zenez, Udaleko teknikariei ezinbestekotzat zituzten proiektuak aurkezteko eskatu zitzaizen eta horietatik udal gobernuak beharrezkotzat jo

dituenak aukeratu ditu. Ikus ondoko koadroa.

Oposizioko alderdiak bat etorri ziren haien abstentzioko arrazoiak eskaintzean. Lan horietako asko beharrezkoak direla onartu arren, udal gobernu taldeak lehentasunik ez duten edo atzeratu daitezkeen proiektuak aukeratu dituela ere nabarmendu zuten.

Jon Martin EH Bilduko bozeramaileak, gainera, erabakia PSE-EEK bakarka hartzea salatu eta larrialdi mahai bat sortzeko eskaera egin zion udal gobernuari. "Hori izango litzateke leku egokiena udalak eta agente ezberdinek elkarlanean egoerari erantzuteko".

EAJren izenean Jon Antxordokik udalak neurri guztien berri eman arren, sail batzuetako laguntzei buruzko informazioa eza salatu du.

Laguntzak

Diru kupuru horren barruan, COVID-19ak sortutako egoerari

Onartutako partidak

Alerta-egoeraren ondorio ekonomikoen aurka borrokatzeko laguntzak 770.000 euro

Ikastetxeetan hobekuntzak

Landaberri ikastetxerako sarbideak konpontzeko eta sendotzeko: **420.000 euro**

Landaberri, Pablo Garaikoetxea, Sasoeta eta Zumaburuko ikastetxeetako hezetetasunak konpontzeko eta gelak margotzeko: **226.163 euro**

Ezinbesteko edo premiazko partidak

Brunet industrialdea, Tellerigaina eta autobus-geltokiak asfaltatzeko: **259.956 euro**

Hirigintzako eta zerbitzu publikoetako azterlan eta proiektu berrietarako: **300.000 euro**

Haur-parkea guztiak prest jartzeko eta Isla plaza eta Urdabururako parke berriak erosteko: **155.000 euro**

Udaleko lanpostuen antolaketa-azterketa eta balorazioa egiteko, herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetzeko: **100.000 euro**

Zataraingo ur-banaketaren sarea hobetzeko: **100.000 euro**

Etxebizitza-eraikinetan igogailuak jartzeko diru-laguntzetarako: **60.000 euro**

Oriako eta Michelingo frontoiak konpontzeko: **35.000 euro**

Manuel Lekuona Kultur Etxeko estalkia konpontzeko: **30.000 euro**

Ekipo informatikoak erosteko: **26.500 euro**



aurre egiteko 770.000 euroko laguntza txertatzea ere onartu zuen Udalbatzak. Ikus hurrengo orrialdea.

Gai honek oposizioko alderdien onespenei gehiago izan zuen. EH Bildu eta ELOP, Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek alde egin baitzuten.

EH Bildu eta ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek beharrezkotzat jo dituzte laguntza horiek egoerari aurre egiteko, baina gabezia batzuk daudela zehaztu dute.

EH Bilduk laguntzen banaketa sistemak kezka sortzen diela onartu zuen alderdi abertzaleak. Eskerak iristen diren ordenaren arabera egiten badira, EH Bilduren ustez, ez dago bermerik gehien behar dutenak laguntza horiek jasoko dituztela jakiteko.

Horrez gain, herriko etxe guztietara laguntzen berri iritsi beharko litzatekeela eta, Lasarte-Oriako komertzioaren aldeko ekimen bat dagoenez, horiekin ekimena nola gauzatu den adostea eskatu du EH Bilduk.

ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puedek ere laguntzen banaketa moduan ditu zailtasunak. EAJk kezka bera izateaz gain, udalaren erabaki azkartasun eza aipatu zituen bere abstentzioa azaltzean. Alderdi jeltzaleko bozeramaile Jon Antxordokik udalak aurrera eramandako neurri guztien berri eman diela jakitera eman du. "Kasu askotan, ados egon gara hartutako neurriekin, eta, beste batzuetan, uste dugu egindako lana hobea izan zitekeela".

Ez dira bi puntu horiek mahai gainean jarri diren bakarrak.

Kontu-hartzaile jaunak aurreko ekitaldian egindako erreparotxostenen kontu ematea ere egin zen eta Udalaren 2019. ekitaldiko aurrekontu likidazioaren berri ere eman zuten.

Hori guztiaz gain, hainbat batzarkideek eskerrak eman zituzten herritarrei, udal langileei eta egoera honi aurre egiten ari diren osasun langileei.

Familiei laguntzeko lerro bat aurkeztu du udalak

Covid-19ak eragindako krisiagatik "egoera zaurgarrian" dauden herritarrei laguntze aldera, oraingoan, 400.000 euro bideratuko ditu Lasarte-Oriako Udalak: ABEE bat aplikatu zaienek, langabezian geratu direnek eta autonomoek eskatu ahalko dituzte, hiru hilabetez

Iñigo Gonzalez Sarobe

Agerraldia egin dute Agustín Valdivia alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako batzordeburu Lourdes Acevedok, udalak martxan jarri duen diru-laguntza lerro baten berri emateko. "Tentuz eta denbora luzez" landu dute gaia, bi ardatz oinarri hartuta: familiak eta komertzioak. Asteon aurkeztu duten plangintza lehenengoei zuzenduta dago. "Kolpe gogorra jaso dute martxoaren 14ra arte klase ertainekoak ziren familia askok: ikusi dute diru-sarrerarik gabe geratu direla, baina euren gastuak ez direla jaitsi", nabarmendu du Acevedok.

Alkateak aipatu ditu laguntza lerroaren oinarrietako batzuk –eskuineko zatiduran kontsulta daitezke xeheago–. Egoera hauetan dauden herritarrek eska ditzakete: ABEE Aldi Baterako lan Erregulazio Espediente bat aplikatu zaienek, langabezian geratu direnek eta autonomoek, baldin eta euren jarduera aldi baterako edo behin betiko eten behar izan badute, martxoaren 14tik aurrera. "Beste laguntza batzuen osagarri izan daitezke", zehaztu dute.

Helburu nagusia da familia horien "oinarrizko beharrak bermatea". Familiek erabakiko dute zeintzuk diren. "Pandemia honek erakutsi digu badaudela funtsezko premia gehiago: adibidez, Interneteko konexio on bat edo gailu elektronikoren bat izatea etxean, haurrek eskolako klaseak jarrai ditzaten". Gastu horiek herriko komertzio eta dendetan egin beharko dituzte, eta hilero-hilero justifikatu, erosketa agirien bitartez. Hiru hilabetez emango dituzte laguntzak, eta, gehienez, 400.000 euro bideratuko dituzte horietara, baina baliteke partida handitzea, "hori egiteko beharrezko baldintzak ematen badira". Apirilaren 30ean ekin



Agustín Valdivia alkateak eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Lourdes Acevedo. TXINTXARRI

DIRU-LAGUNTZA HAU EK ALERTA EGOERA BUKATU ETA HILABETERA ARTE IRAUNGO DUTE

zioten laguntzak emateari; hamar familia jarri dira udalarekin harremanetan, Acevedok jakinarazi duenez.

"Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaile ohikoak direnak eta ez direnak bereizi nahi izan ditugu, udal zerbitzuek gainezka egin ez dezaten", nabarmendu du Acevedok. Horri lotuta, alkateak azaldu du Covid-19 *bulegoa* sortzea erabaki dutela, Mirentxun, koronabirusak eragindako egoera kudeatzen laguntzeko. Bi langile sozialek, bi administrarik eta lan teknikari batek egingo dute lan bertan.

Familiak eta komertzioa indartu

"Oinarrizkoa da herriko familien diru-sarrerak indartzea, beraiek gero gastua herriko komertzio eta dendetan egin dezaten", azaldu du Acevedok. Gizarte

Zerbitzuak arduratuko dira familiei zuzendutako laguntzak kudeatzeko; Sozioekonomia batzordeak, berriz, komertzioei lagunduko die. "Laster" iragarriko ditu udalak denda txikiei zuzendutako lerroen oinarriak zertan diren.

Agerraldia egin duten udal ordezkariak azpimarratu dute ez dela erraza izaten ari laguntzen oinarriak-eta adostu eta zehaztea, eta Udal Gobernua "aurreneko aldiz" ari dela horrelako egoera bati aurre egiten. "Denbora behar izan dugu lerro honen nondik-norakoak zehazteko, eta bere erritmoa dauka administrazioak ere; gainera, gehiengoa ez daukagunez udalbatzarrean, ezin ditugu horrelako egitasmoak horren azkar onartu". Iragan asteko ostegunean egin zuten ezohiko bilkura udal korporazioko kideek, telematikoki, goizean. Adostu zuten kreditu aldaketa bat egitea, besteak beste, Covid-19ak eragindako egoera ahalik eta gehien leuntzen saiatzeko diru partida bat, 770.000 eurokoa. Horietatik 400.000 bideratuko dituzte laguntza lerro honetara.

Oinarriak eta baldintzak

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du laguntza lerro bat martxan jarri duela, koronabirusak eragindako egoeraren ondorioak pairatzen dituzten herriko hainbat familiarentzat. Oinarrien eta baldintzen berri ere eman dute. Artikulu honetan xehetu ditugu txintxarri.eus webgunean irakur eta kontsulta daitezke guzti-guztiak.

Nori zuzenduta daude?

- Martxoaren 14tik aurrera ABEE Aldi Baterako lan Erregulazio Espediente bat aplikatu zaien herritarrek, langabezian geratu direnek eta autonomoek, baldin eta euren jarduera aldi baterako edo behin betiko eten behar izan badute.

Zenbat diru eta zenbat denboraz?

- Gehienez hiru hilabetezko diru-laguntzak izango dira, martxoaren 14tik hasita, eta ez dituzte 400.000 euro baino gehiago bideratuko lerro horretara oraingoan, nahiz eta posible den kopurua handitzea, baldin eta nahikoa baliabide badauzkate.
- Eskatzaileek hilabetero jaso ditzaketen kopuru maximoak: pertsona bateko bizikidetzak-unitateek, 300 euro; bi pertsonakoe, 400 euro; eta, hiru edo gehiagokoe, 500 euro.

Bete beharreko baldintza batzuk

- Jasotako laguntzak, ezinbestean, herriko komertzioetan erosteko erabili behar dituzte.
- Bizikidetzak-unitateko kideen kontu korrante guztien saldoen baturak ezin du izan 6.000 eurokoa pertsona bakar baten kasuan; 7.500 eurokoa bi pertsonen kasuan; edo 9.000 eurokoa, hiru edo pertsona gehiagoren kasuan.
- Ezingo dute laguntza eskatu onuradunak zorrak baditu udalarekin –erakundeak aztertuko du eskatzaile bakoitzaren egoera zein den, eta zorrik daukan edo ez–.
- Erosketa txartelak biltzea, gero justifikatzeko. Hilero aurkeztu beharko dituzte eskatzaileek, Mirentxun, hilabete bakoitza amaitu eta hamar egunera, gehien jota.
- Beste diru-laguntza batzuk jasoz gero –publikoak edo pribatuak, estatu mailakoak edo nazioartekoak–, udalari jakinaraztea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- NAN, EIZ edo pasaportea.
- Adin txikikoren bat zaintzen dutenek, familia-liburua.
- Izatezko bikoteek, hori egiaztatzen duen agiria.
- Lanbideko prestazioaren agiria.
- Bizikidetzak-unitate osoaren kontu korranteen saldoen adierazpena.
- Udalak laguntza ingresa dezan, banketxearen kontu zenbakia.
- Eskaera egiterako unean eskatutako dokumentu guztiak bildu ezin izan dituztenek, beste bi hilabetezko epea izango dute.

Eskaerak aurkezteko modua, tokia eta epeak

- Mirentxuko bulegoetan aurkeztu beharko dira eskariak, ekitaldi-aretoan sortu direnetan. 636 148 998 telefonora deitu beharko dute kontsultetarako edo hitzordua hartzeko. Gizarte langileekin zita izango dute eskatzaile guztiek, baina ez dute inor artatuko ez badu aurrez hitzordua hartu. Telematikoki ere aurkez daitezke eskaerak, www.lasarte-oria.eus web orrialdean. Deialdia indarrean egongo da alerta egoera amaitu eta hilabetera arte.

Eskaeren tramitazioa

- Eskabidea jaso, ebaluatu eta esleitutako gizarte-langilearen nahitaezko txostena eman ondoren, Gizarte Zerbitzu, Berdintasun, Lankidetzak eta Osasun Sailak Alkatetzari aurkeztuko dio proposamena, dekretu bidez ebatz dezan. Laguntza eman eta berehala egingo da ordainketa, emandako kontu zenbakian ingresatuz dirua.



Herritar batek animatuta joan zen, duela pare bat urte, Bujagalira Karmele Salsamendi lasarteoriatarra. Orduz geroztik elkarlanean jarraitzen du elkartearekin. K. SALSAMENDI

Elkartasunak ez dauka mugarik

Duela "pare bat urte" bidaiatu zuen Karmele Salsamendik Ugandara, Bujagalira. Orduz geroztik bertako familiak laguntzen dituen Mukwano Lagun elkartearekin elkarlanean jarraitzen du; azoka solidarioa jarri dute martxan, birusaren eragina arintzen laguntzeko

Txintxarri

Afrikako haurtzarora zaintzeko sortutako elkarte da Mukwano Lagun. 2006. urtean Sabin Gabilondo, Jinja Bujagali-ra (Uganda) piraguan ibiltzera joan eta bertako beharrak ikusita hasi zen lanean. Dentista gisa, osasun arloan hasi zen laguntza eskaintzen, baina gehien behar duten haurrei oinarrizko beharrak asetzeko ere aritu da lan eta lan; lotarako lastairak, mantak eta eltxo-sareak banatu ditu Bujagaliko familien artean. Urte gutxiren buruan "argi" ikusi zuen haurren eskolaratzeak lehentasuna behar zuela, eta "poliki-poliki", elkarte sortu, eta forma hartzen joan da, gaur arte. Egun Nursery eta Primary

eskolak, Secondary eta goi mailako eskolatarako bekak izateaz gain, osasun zaintzako saila ere osatu dute. Guzti hau Jinjako Nefaha elkartearen eskutik burutzen du Mukwano-Lagun elkarteak.

Nefaha, Familia eta Osasun sentsibilizazio Sarea da; Ugandako Gobernuak legalki aitortua dagoen elkarte da. Emakume alargunek sortu zuten inguruko umezurtz eta kaleko umeen laguntzeko, eta gaur egun, Mukwano-Lagun elkartearekin batera Bujagali eta inguruko herrietako garapena eta oinarrizko laguntzak bideratzen ditu. Zuzendaritza batek osatzen du elkarte eta Bujagalin bertan, proiektua ikuskatu eta zuzeneko

jarraipena egiteaz arduratzen da.

Jinja Bujagali biztanleria handiko zonaldea da. Jinja distrituan kokaturik dago eta Jinja hiriburutik 12 kilometrotara eta Kanpala, Ugandako hiriburutik 84 kilometrotara. "Biztanleria handiko zonaldea izanik, gaixotasun asko topatu daitezke, eta, ondorioz, umezurtz tasa altua da", azaldu du Karmele Salsamendi Mukwano Lagun elkarteko kide lasarteoriatarrak. Uraren adibidez jarri du: "Uraren kalitate txarrak edo edangarria ez izateak kolera eta diarrea bezalako gaixotasun kroniko ugari sortzen ditu". Gaixotasun horien ondorioz, pertsonen hilkortasuna handitu egiten da, "bereziki umeen

kasuan". Jarri dizkio zenbakiak azalpen horiei: "Ugandan umeen hilkortasun tasa bizirik jaiotako 1.000 umetatik 69koa da. 2.012 urteko datuak hartzen baditugu, Jinjako distrituan 501.300 biztanle zeudela kalkulatu da eta batzuek besteko adina 15,9 urtekoa zen". Gaineratu du haurren "zaugarritasuna oso altua" dela: "Haurrekiko tratatu txarrak, esplotazio fisiko eta sexuala eta abandonua ere ohiko dira".

Biztanleriaren %63a nekazaritza lurraldeetan bizi da eta nekazariak dira nagusiki: "Nekazaritza eta abeltzaintza dira Bujagaliko oinarrizko jarduerak, baina norbere kontsumorako aritzen dira batez ere".

"Duela pare bat urte", Urtzi Agirretxe lasarteoriatarren bitartez ezagutu zuen Salsamendik elkarte, eta jostuna denez, bere laguntza eskaini zuen. Bujagalin, eskolako jarduerak gisa joskitza tailer bat zutela ikusi, eta bertakoekin hitz eginda, motxila hartu eta Bujagalira joan zen. Alaitz Aizpurua usurbildarrarekin egin zuen topo han, eta hark azaldu zizkion Bujagalin martxan zeuden proiektuak.

Horrela, egun batzuk pasata Jinjara joan ziren, eta oihalak erosi zituzten. Horiekin poltsak egiteaz gain, konpresen proiektua ere martxan jarri zuten. "Emakumeek euren higiene

pertsonala zaintzeko jarri genuen martxan, eta nerabeen artean ere banatu genituen".

"Bizipen handia" izan zen hura Salsamendirentzat, eta irakatsi baina gehiago ikasi egin zuela azpimarratu du. Orduz geroztik "hartu emanean eta kolaborazioan" jarraitzen du elkartearekin, eta Lasarte-Orian duen estudioan, Ugandako oihalekin eginiko hainbat produktu saltzen ditu. Uistin kalean duen estudiotik pasatzeko deia luzatu die herritarrei.

Elkartearen helburu nagusiak

Mukwano Lagun elkarteak (Nefaharekin elkarlanean) helburu ezberdinak ditu, baina hiru lerro nagusitan banatzen dira: osasuna, hezkuntza eta komunitatearen garapena. Horrekin batera, emakumeekin egien den lana ere azpimarratzeko dela uste du Salsamendik.

"Osasunari dagokionean, eskolako haurren oinarrizko osasun zaintza egiten dugu". Horretarako, urte osoan zehar erizain batek egiten du lan bertan, eta berarekin batera, osasungintzan aritzen diren mediku, erizain, dentista eta fisioterapeuta boluntarioen "ekarpen handia eta laguntza" izaten dute. "Oinarrizko tratamenduez gain, malaria edo diarrea dutenak, edota parasitoekin kutsatutako kasuak ospitalera bideratzen ditugu, eta zenbait kasutan interbentzio edo ebakuntzak ere egin izan ditugu".

Gaixotasun kronikoak edo larriak (paralisia adibidez) dituzte haur eta familien egoera "bereziki larria" dela azpimarratu du herritarrek: "kasu gehienetan, bere gain hartu ezin duten luxua bihurtzen da familia horientzako umeen zaintza". Horregatik, azken urteetan Nefaha eta Mukwano Lagun elkarteak famili hauei ikusgarritasuna eta "zaintza sozio-sanitarioa" eskaintzen die. "Astero arroza, irina, babarrunak, azukrea eta xaboia bezalako oinarrizko produktuak ematen dizkiegu, baita beharrezko zaizkien sendagaiak ere". Errehabilitazioa behar dutenen kasuetan ere garraiorako gastuak ordaintzeko laguntza ematen diete.

Ikerketa batean oinarritutako datuen berri eman du Salsamendik: "2-5 urteko umeen

KORONABIRUSAK ARE ZAILAGOA BIHURTU DU BUJAGALIN BIZI DIRENEN EGUNEROKOA

artean dagoen desnutrizio tasa %9,6ko da eta %21,2 ez da gutxieneko pisua edukitzera iristen, eta lehen bost urte bitarteko heriotzen 2/3ak desnutrizioa pairatzen duten umeen artean gertatzen dira. Heriotza horiek gehienak, ordea, elikadura eta garapen ekonomiko egoki batekin ekidin daitezke, desnutrizioak garapen immunologiko eta kognitibo desgokiak eragiten dituen infekzioak sorrarazten baititu. Ezinezkoa da hezkuntza egoki bat eskaintzea egoera honetan dauden haurren artean ez baitute garapen neurologiko egokia izan”.

Hezkuntzan ere eragiten du elkartek. “Bost umeetatik ia bat analfabetoa da Ugandan, baina are larriagoa da egoera nekazaritza guneetako nesken artean”. Haur askorentzat “ezinezkoa” da ikasketak amaitzea, eskola ordaintzeko “zailtasunak” baitituzte. Horregatik, 5 eta 14 urte arteko ume eta gazteen %36a lan egitera behartua izaten da, “etxeko ekonomian laguntzeko, edo umezurtzak direnen kasuan, bizirauteko”. Halere, Lehen hezkuntzako 350 gaztetxo joaten diren eskola bat dauka elkartek, Haur eskolako 125 haur joaten diren bigarren eskola bat ere bai. Horretaz gain, Bigarren hezkuntzan, Lanbide heziketa eta unibertsitatera joaten diren 50 ikasle ditugu bekatuta.

Osasunarekin eta hezkuntzarekin batera komunitatearen garapenaz ere arduratzen da Mukwano Lagun, eta bertan, boluntarioek egiten dituzten proiektu ezberdinak kokatzen dituzte. “Horien helburu nagusia Bujagaliko komunitatearen ahaluntze eta garapena da norberetik edo etxetik abiatuta, baina, horretarako, ordea, oinarritzko beharrak asetzea beharrezkoa da, hala nola, etxebizitza, eguneroko janaria edota arropa eta zapak”.

Beste hainbat proiekturen artean, “ahuntzen minikredituak” eta oilategi bat

AZOKA SOLIDARIOA JARRI DUTE MARTXAN, UGANDAKO HERRITARREI LAGUNTZA EMATEKO

jarri ere jarri dute martxan “arrautzak lortu eta haur eskolako gosarian – Porridgea – proteinak gehitzeko”. Arropa, zapatak eta eskolako materialak ere banatzen dituzte komunitateko kideen artean, eta eskolan liburutegi berri bat ere ireki dute. Emakumeen ahaluntzea lantzeko “josteko tailerra” sortu dute eta Salsamendik azaldukoaren arabera “proiektu berezia” izan da; emakumeak ahaluntzeko “tresna bikaina”. Aipamen berezia ere egin nahiko izan dio, lastairai, manta eta eltxo-sareen banaketari: “Malariaaren prebentzioan hartu litekeen neurri eraginkorrena da, urte guztia hauetan 1,000 lastaira manta eta eltxo-sare banatu ditugu”.

Egunerokoa zailago

Koronabirusak “erabat” aldatu du Bujagaliko egunerokoa. Lehen kutsadura kasuak agertu aurretik hartu zituzten neurriak: “Eskolak, taberna eta elizak itxi zituzten, eta janari-denda eta merkatuak bakarrik daude irekita”. Garraio publikorik ere ezin dute erabili, ezta taxi moduan ibiltzen diren furgonetarik ezta motorrik ere, eta gehienek ez dute garraiobide pribaturik.

Hemen bizitzen ari garen konfinamenduaren antzeko neurri bat ere ezarri diete Bujagalin. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera ezin dute etxetik kanpo egon, eta egoera “are zailagoa” da birusa agertu zenetik. “Ugandan jendeak ez dauka janaria biltegitratuta, ezta aurreztutako dirurik ere, egunean egunekoarekin bizi dira eta guzti honek gosea adierazten du. Jatekoa bilatzea ere zaila egiten zaie egoera honetan. Lanik egin ezean, zaila da egunean eguneko elikagaiak topatzea eta soilik baratza bat daukanak izango du jatekorik”.

Momentuz Ugandako datu ofizialen arabera 50 kasu baino gehiago diagnostikatu dituzte eta ez da heriotzarik erregistratu. Halere, Salsamendik azaldu duenez Ugandako osasun sistema “oso mugatua” da, eta

diagnostikoak egiteko dituzten baliabideak ere “oso urriak”. Hori kontuan izanik, “datu errealak beste batzuk” izan daitezkeela uste du lasarteoriatarrek.

Azoka solidarioa

Ugandan mugak ixten ari zirela ikusi zutenean jabetu ziren horrek bertako herritarrengan ekarriko zituen ondorioez. Horrela, elkarteko zenbait kide batu, eta Bujagalitik ekarritako oihalekin “produktu ezberdinak” egiten hasi ziren, “dirua bildu eta bertako herritarrei laguntzeko”. Tote bag poltsak, nezeserrak, diru-zorroak, maskarak eta ilerako osagarriak egin dituzte, b

esteak beste. Hasiera-hasieratik jaso duten erantzuna “oso ona” izaten ari da: “jende askok agertu du produktuak erosteko interesa”. Horren gain, euren eskulanak edo produktuak emateko prest agertu den jendea ere (parte hartzaileen zerrenda txintxarri.eus atariko albistean) “asko” izan dira, eta hori kontuan hartuz, laguntzeko hiru bide jarri dituzte: egitasmoa sare sozialetan partekatzea; egindako eskulanak egitasmoari eman eta azokan salgai jartzea, eta salgai jarritako produktua erostea. “Harrituta” daude jendeak eta marka ezberdinak izaten ari diren parte-hartzearekin: “Seguruenik etorkizunean gauza gehiago egingo ditugu, kaleko azoka edota ekitaldiren bat”. Bigarren eskuko arropa eta liburuak ere eskuratu daitezke azokan, baita eskulan hainbat ere.

Azoka solidarioan parte hartu nahi duenak, elkartearen sare sozialetan bidez jar daitezke Salsamendirekin harremanetan; Facebooken Mukwano lagun orrialdean eta Instagramen, berriz, Mukwanolagun-en. Horrez gain, telefono zenbaki bat ere eman du elkarrizketatuak: 600352871.

Egitasmo horren bidez lortutako diruarekin Bujagaliko 30 familia “behartsuenen” elikagaiak eta xaboia erostea da helburua. “Orain arte zapi familiei urte osoan zehar ematen genien laguntza hori, eta horrekin batera, eskoletako mantenua eta bertako maisuen soldataz arduratu gara. Orain familia geroz eta gehiago izango dira behar hori izango dutenak”



Joskintza tailerrean ikasteko aukera dute Bujagalin. KARMELE SALSAMENDI



Karmele Salsamendi Ugandan egindako egonaldiko argazkiak. KARMELE SALSAMENDI



Emakumeentzako konpresak egiten irakatsi die lasarteoriatarrek. KARMELE SALSAMENDI



Bea Egizabal, Joxe Mari Agirretxe, Ane Labaka eta Aintzane Usandizagarekin solasaldia egin du TXINTXARRI aldizkariak. Kulturak merezi duen lekua aldarrikatu dute, besteak beste. TXINTXARRI

Herriko kultur eragileekin solasaldi digitala, TXINTXARRIK

BEA EGIZABAL, JOXE MARI AGIRRETXE, ANE LABAKA ETA AINTZANE USANDIZAGA HERRIKO KULTUR ERAGILEAK Koronabirusak mundua harrapatu duenetik, itzalpetik lehen lerrora ekarri du gizarteak kultura. Egunero sortzaile, abeslari, idazle, antzezle, pailazo edota bestelako kultur eragileen lanarekin arindu da egunerokoa. Apirilaren 21ean eta 22an, ordea, greba digitala deitu zuten, desagertuz ikustarazteko eta isildu entzunarazteko. Lasarteoriatarrek bat egin zuten deialdiarekin

Maddi Zaldua

Kulturak eman dio koronabirusak iraultitako egunerokoari oreka, eta bizi dugun egoerak berretsi du kultura ezinbesteko tresna dela gizartearentzat. Ikusi ditugu sortzaileak, idazleak, abeslariak, bertsolariak eta

antzezle asko, besteak beste, pantailaren beste aldean, egunez eta gauez, baina bi egunez ere desagertu egin behar izan dira ikustarazteko. Hain zuzen ere, osasun larrialdia gertatu arte itzalpean egon den kulturak merezi duen lekua aldarrikatzeko baliatu dute

greba. Grebarekin bat egin dute Lasarte-Oriako kultur eragileek ere, eta beraiekin bildu da TXINTXARRI guzti horren inguruan hitz egiteko. Bea Egizabal ipuin-kontalaria, Joxe Mari Agirretxe, Porrotx pailazoa, Aintzane Usandizaga idazlea eta Ane Labaka

bertsolari eta sortzailearekin tertulia egin du aldizkariak.

Herritar guztiek bezala, etxean daramatzate ia 50 egun, eta itxialdia nola bizitzen ari diren kontatu ekin diote tertuliari (00:00tik 07:00ra). Egokitzen asteak pasa dituztela azaldu dute laurak,

baina hasierako eta gaur-gaurko egoeren artean ezberdintasunak antzeman dituzte. Egizabalek azaldu du itxialdiko lehen asteetan ez bezala, gerora sumatu duela bajoi orokor bat. Joxemarik, berriz, teknologia berrien bidezko “konpromisoetara” ohituta dagoela azaldu du. Aintzaneren esanetan, “nekea” nabaritzen hasi dela aitortu du, baina egoera “oso onartuta” duen heinean, horretara moldatzen ari da orain. Anek shock egoera bizitu zuen osasun larrialdia iritsi zenean, eta hasieran ez bezala, luzerako egoera zela ikusteak gorabeheratsu sentiarazten dute.

Etiket zenbait lan egiteko ohitura izan dezaketen arren, publiko aurrean lan egiten dute batez ere Egizabalek, Agirretxek eta Labakak, eta itxialdiak euren lanetan izan duen eraginaz ere hitz egin dute.

Konfinamenduak euren eguneroko jardunari nola eragin dion ere azaldu dute (07:33tik 22:40ra). Aintzaneren kasuan “zuzenean” eragin dio

KULTUR ERAGILEEK BAT EGITEKO DESIRA AGERTU DUTE, ETA HAUSNARKETARA DEITU DUTE GIZARTEA

osasun krisiak. Idaztea, eguneroko soldata irabazteko lanaz “aparte” egiten duen lana dela argitu du, eta azaldu du, arte hezkuntzako proiektuak martxan jartzen dituen kooperatiba batean ari zela lanean. Ikastetxeekin lanean ari zirenez, hori guztia bertan behera geratu denez, berari ere zuzenean eragin dio.

Aneri ere erabat aldatu zaio egunerokoa. Sortzeko “ezinbestekoa” du mendira, kalera irtetea, eta hori eten egin zaio. Bertso saioak eta eskuartean dituen bestelako lanak bertan behera geratu zaizkio urteko aurreikuspenetan “puntu altuak” zetozenean.

Joxe Mariren egunerokoa ere orain artekoaren erabat ezberdina. Kooperatiba bateko kide den neurrian, diru-sarrerak guztiz eten zaizkie, baina Porrotxek ez du sudur gorria kendu, eta pailazo taldearekin batera, 400 mezu baino gehiago bidali dituzte konfinamenduan zehar.

Beak urte bukaerara arte lanik egiteko aukerarik edukiko ez duela aurreikusi du, eta

KULTURA HERRIA EGITEKO "EZINBESTEKO TRESNA" DELA ALDARRIKATU DUTE

baliagarria izan zaio bere lana aurrera eramateko publikoa behar duela berresteko; teknologia berrien bidez lan egitea “asko kostatzen” zaio.

Kultura, herriak eta komunitateak bat egiteko “beharrezko” tresna dela aldarrikatu dute laurek, itxialdian kontsumitu den “berehalako kulturaren” inguruko ausartzera bultzatu ditu Labakak.

Kultur greba digitala

Apirilaren 21ean eta 22an sare sozialetatik desagertu zen kultura. Hain zuzen ere, kultur eragileak ikustarazi eta entzuteko egin dute protesta, eta solasaldiko lau kideek ere bat egin zuten deialdiarekin (22:40tik 41:39ra).

“Begirada aldaketa bat” gertatu behar dela azpimarratu du Usandizagak: “Kultura ezin daiteke ezerezetik agertu eta kontsumitu egiten den produktu bat bezala”. Gizarteak hausnarketa egin behar duela uste badu ere, erakundeen aldetik galdegin du aldaketa nagusia.

Labakaka, berriz, gogoeta bat ekarri du; kultura pertsona

askoren “ogibidea” dela gogorarazi du, eta hortaz jabetzeko beharra azpimarratu: “Beste edozein lanbide zalentzuan jartzen ez den bitartean, niri, nire lanaren inguruan iristen zaizkidan mezuak zalantzatik etorri dira”.

Hausnarketa polita gehitu dio Egizabalek bere herrikideenari. Kultura duen herri bat “manipulatzen zailagoa” dela nabarmendu du, eta gehitu du, arazoa “estrukturala” dela erabat.

Joxemarik herriko kultur egoerari egin dio erreferentzia, eta kulturari merezi duen lekuan emateko Lasarte-Orian, urte luze hauetan aurkitutako oztopoak jakinarazi ditu, besteak beste.

Horrela, hausnarketa eskatu diote gizarteari eta, noski, erakundeei (41:41etik amaierara arte). Eta desira bat partekatu dute denek; hemendik aurrera kultur eragileak bat egin eta saretzen hasteko. Horrekin batera, kultur planifikazio “estrategikoak eta nazionalak” beharrezko ikusten ditu Agirretxek, behin betiko “motxilarekin alde batera eta beste ibiltzeari utzi ahal izateko”.

Tertulia
digitala
ikusteko egin
klik hemen



Apirilaren 21ean eta 22an egin dute greba digitala. EUSKAL HERRIKO KULTUR ERAGILEAK

Tertuliako parte-hartzaileak



Bea Egizabal
Ipuin-kontalaria eta antzezlea



Joxe Mari Agirretxe
Porrotx pailazoa



Ane Labaka
Bertsolaria eta sortzailea



Aintzane Usandizaga
Idazlea



Helburua egoera gainditzea da

Lasarte-Oriako kirol taldeek etenaldia izan dute bere kirol arloko jardunean, baina teknikoki lanean ari dira. Herriko kirol taldeekin harremanetan jarri gara itxialdia nola daramaten jakiteko, horien artean, Texas Lasartearra taldearekin

Nerea Eizagirre

Zelaian ez dago jardunik, baina Texas Lasartearra taldeko sare sozial eta WhatsApp taldeak bor-bor daude, talde teknikoak lan telematikoak egiten ari da eta elkartasunerako tartea ere izan du futbol taldeak. Texas Lasartearra taldeko lehendakari Haritz Hernandezekin hitz egin dugu itxialdiari buruz.

Texas Lasartearra elkarteak euren jokalarien egoera aztertu eta hasieratik argi zuen jokalariek guztiek lan fisikoa egitea ezinezkoa zuela. Horregatik, haur eta gazteen moralak mantentzeko lanean ari da berrogeialdian.

“Oso zaila da egoera fisikoa mantentzea familiek bizi dituzten zenbait egoeratan. Familia ugarietan, esate baterako, zaila da ariketak egiteko gune bat egon ahal izatea. Horregatik, egoera honetan, forman egotea bigarren mailakoa dela erabaki dugu. Garrantzitsuena moralki ongi egotea da, eta haur, zein

helduak egoera ahal den modu arinean igaro eta ongi pasatzen badugu hobeto”, adierazi du Hernandezek.

Horretarako, haur gazte eta elkarte lagunekin etxealdian harremana mantendu eta ekimen ugari antolatu dituzte eta elkarte talde teknikoak kirol lanak egiteki lan telematikoak egitera igaro dela azaldu digu lehendakariak. “Harremana mantentzeko ideia ugari ikusi dugu sarean eta sare sozialetan eta Whatsapp taldeetan eta gure webgunean eta sare sozialetan (Facebook, Instagram, Twitter...) banatzen ditugu”.

Gainera, ekimen telematiko batzuk antolatu dituzte, hala nola, FIFA 2020ko online txapelketak.

"DENBORALDI AMAIERARI BURUZ, PAZIENTZIA ETA ZUHURTZIA IZAN BEHAR DITUGU"

“Nahi zuenak izena eman ahal zuen eta Champions eta Europa Leagueko txapelketak egon dira. Partehartzea handia izan zen eta gazteek herritarrei haien mezuak bidaltzeko ere balio izan zuen. Bideo bat ere egin genuen eta gure sare sozialetan igo”, azaldu du Texas Lasartearra elkarte arduradunak.

WhatsApp eta sare sozialetan modan dauden erronkak ere egin dituzte. “Komuneko paperaren erronkan, esate baterako, jokalariek, zuzendaritzako kideek, eta taldeko jokalariek ohiek ere parte hartu dute horietan. Hori da futbolariek duena, odolean daramagula”.

Denboraldi jarraipena

Etenda geratu zen denboraldi buruz galdetzean, aurtengoa galdutzat ematen du Texas Lasartearra elkarteak.

Infantil mailako gazteek denboraldi ederra gauzatu dute eta txapeldun fasean jokatzen

ari ziren. “Ez dugu ideiarik nola gauzatu den denboraldi amaiera. Pazientzia izan behar dugu eta zuhurrak izan”. Asteazkenean liga guztiak bertan behera geratzea adostu zuten lurraldeetako federazioek.

Nahiz eta denboraldia amaitutzat eman “egoera honen irtenbidea zein den jakin arte” hurrengo denboraldiari begira lanean hasiko ez direla nabarmendu du.

Hala ere, Texas Lasartearra elkartearen ideia eta epe motzerako helburu bat ere aipatu ditu. “Ideia talde guztiak lanean jarraitzea da. Hurrengo denboraldian, gainera, kadete mailako taldearekin ere hasiko ginateke lanean. Eta infantil

mailan, 10 urteko nesken talde bat egiteko ideia genuen eta mantenduko dugu”.

Hori guztia ordea, larrialdi egoerak baldintzatu dezake. “Ez dugu presarik, lehenengo gauza bizi dugun egoera gainditzea da eta gero izango dugu denbora futboleko pentsatzeko”.

Texas Lasartearra elkarteak familia guztiaren izenean herritarrei mezu bat helarazi izan die lehendakariak. “Harro gaude zuek, egoera latz honetan elkartasunez betetako herria garela erakusten ari gara eta ez behar guztiak direla ere, aurrera egingo dugu beti. Besarkada handi bat eta Gora Texas txapeldun”.

Babes materiala banatzen

COVID-19ak izandako hedapenak sortutako osasun larrialdiaren aurrean, Texas Lasartearra kirol elkarteak laguntza eskaini dio Lasarte-Oriako Atsotak zahar egoitzari eta anbulatorioko langileei.

“Gure lehentasuna pertsonak izan dira. Ez du zentzurik futbolari buruz hitz egitea mundu osoan pertsonak hiltzen ari direnean eta guri eredu izatea dagokigu. Herriko taldea gara eta laguntzeko gaude, kirol arloan eta gizarte arloan”, adierazi du Haritz Hernandez lehendakariak.

Gutun bat igorri zuen kirol elkarteak Atsotakarrera, egoera honetan zein behar zituzten eta zertan lagundu zezaketen galdetuz, eta bertatik egindako eskakizunei erantzunez, babeserako materiala bildu zuten.

Ebakuntza gelako 200 maskara, 20 litro gel hidroalkolikoa eta aurpegia babesteko PVC xaflarekin egindako 20 bisera eraman ditu elkarteak zahar egoitzara. Horrekin

batera, 40 mantala-iragaitz eta hiru termometro digital ere eman dizkiete bigarren txanda batean.

Odolean dagoen oxigeno kopurua neurtzen duen satuometroen bila ari direla azpimarratu dute, eta horiek aurkitzeko zailtasunak izaten ari badira ere, horretan jarraituko dutela azaldu dute.

Anbulatorioko langileak materialez hornituta dauden arren, FP3 motako maskarak eskatu zizkieten elkarteari, eta 40 unitate eskuratu zituzten elkarteak.

PVC xaflarekin egindako bisera TAG lantegiak eman dizkien arren, gainerako materiala elkarteak bere aurrekontutik hartutako diruarekin eskuratu ditu. “Gure aurrekontua modu neurtuan erabili behar izaten dugu, baina bizitzen ari garen egoera honetan gure herritarrei laguntzeko erantzukizuna dugula uste dugu, eta datorren urtea hutsetik hasi behar badugu, hasiko dugu”.





Denboraldi honetan, Ostadar SKT futbol jokalariek ez dute futbol partida gehiagorik jokatuko Michelin kirol gunean. TXINTXARRI

Denboraldia amaitu da

Ostadar SKTko futbol ataleko Joxe Pikabea koordinatzaileak alerta-egoera honetan nola moldatu diren jakitera eman digu. Zalantza askoko egunak pasa eta gero, federazioen erabakiak direla ere, entrenamenduetara bueltatuko ez direla jakitera eman dute

Nerea Eizagirre

Geltoki kaleko bulegotik etxera. Ostadar SKTko atalak etxetik ari dira lanean eta horietako bat dugu, Joxe Pikabeak kudeatzen duen futbol atala. "Bulegoko ordenagailura erremoto bidez konektaturik" egiten du lan.

Lehiaketarik ez egoteak Joxeren jarduna murriztu du, baina atala kudeatzeko zuzendaritza taldea maiz biltzen dela onartu du.

Nahiz eta entrenamendutik ez egon, kirolariak etxean ariketak egiten ari diren galdetzean, talde bakoitzeko entrenatzaileak bere taldea kudeatzen duela nabarmendu du. "Nik adibidez, infantil txikia entrenatzen dut, 12 eta 13 urteko gazteak, eta nire kasuan ez diegu ezer berezirik eskatu egiteko".

Izan ere, Pikabearen hitzetan, "aspaldian konturatu ginen denboraldi hau ez dela berriro martxan jarriko, eta gehiago gaude datorren denboraldia nola

eta noiz martxan jarri ahal izango dugun pentsatzen".

Talde harremana mantentzeko ekintzarik antolatu ez dutela adierazi digu, hala ere, jokalariek WhatsApp taldeetan dabiltzan erronka ezberdinetan parte hartzen ari direla jakitun da.

Hurrengo denboraldia

Duela hilabete, Espainiako federazioak liga amaitutzat ematen eta igoerak zehazteko sistema bat proposatu zuen. Neurri horri jarraituz gero, Ostadarreko jubenil taldeak fase berri bat jokatu beharko luke. Izan ere, igoera faseko postuetan baitzegoen jardunen etena indarrean jartzean. Ostadarreko arduradunek ez dute uste

"ASPALDIAN KONTURATU GINEN DENBORALDI HAU EZ DELA MARTXAN JARRIKO BERRIRO"

partidarik izango denik eta Gipuzkoako federazioak denboraldian egindako lan guztia kontutan hartzea izango dute helburu. "Gipuzkoako federazioak, klub guztiei denboraldia nola bukatzeari buruzko gure iritzia ematea

EZARRITAKO OSASUN NEURRIAK IKUSIRIK, ETENALDIA "NAHI BAINA GEHIAGO LUZATUKO DA"

eskatu digu, baino ez dugu uste partidarik jokatuko denik, beraz, denboraldia balio gabea ematen da edo egindako sailkapenak kontuan hartuta igoerak egingo direla uste dugu".

Oraindik ofizialki ez dute jaso ezer Gipuzkoako federaziotik, ezta Aldunditik ere. Asteazkenean Espainiako federazioarekin bildu ziren lurraldeetako arduradun guztiak, eta Ostadarrek zerbait gehiago jakitea espero zuen, "baina sorpresa handirik ez badago, denboraldia bukatutzat emango da".

Nahiz eta denboraldia amaitutzat eman, ez dira hurrengo denboraldia prestatzen hasi. Entrenatzaileekin hitz egin, maila bakoitzeko taldeen zerrendak egin... lana du aurretik Pikabeak.

Lan horri, ordea, hurrengo denboraldiari buruzko ezjakintasuna gehitzen zaio eta hori dela-eta, zailtasunak ikusten ditu 2020-2021 ikasturtea bermez prestatu ahal izateko. "Ekaineko lehenengo astean, deialdia egin ohi dugu, norbait berria etorri nahi izanez gero, bertan aurkezteko, baina, hau uste dut, aurtun ezin egin ahal izango dugunik".

Hurrengo denboraldian begira, jardun normalik egongo ez dela ere iritzi dio Pikabeak: "Nik uste dut, denboraldi batean ez

dugula normal entrenatzerik izango". Izan ere, galdera asko airean baitaude, hala nola, kirol jarduna noiz eta zein baldintzetan hasiko den. "Ea noiz den posible 15-20 pertsonen elkarrekin entrenatzea. Gainera, besteak beste, orain arte erabiltzen ditugun uraren poteak ezin izango ditugu erabili eta dutxa ere bakoitzak bere etxean egin beharko duela iruditzen zait".

Horregatik, osasun neurri horiek entrenamenduetan izan ditzaketan eragina handia ikusirik, etenaldi egoera "nahi baino gehiago luzatuko dela" uste du Ostadar SKTko koordinatzaileak.

Erantzun horiek Espainiako Gobernuak ezarritako normaltasunerako bideko faseak argitaratu baino lehen erantzun zuen Ostadar SKTko futbol ataleko koordinatzaileak. Egun, 2. fasean, kirol talde ez profesionalen entrenatzen hasi ahal direla dakigula, Pikabeak federazioak denboraldia amaitutzat ematen badu, taldeak ez direla entrenatzera bueltatuko azaldu du. Ez du itzulerarako data zehatzik eskaini ere.

Kirol arloko buruhausteak alde batera utzita, herritarrei ere lasaitasun mezu bat bidali nahi die Ostadarreko futbol saileko arduradunak, "garrantzitsuena osasuna da eta txertoa aterata bitartean kutsatzeko arriskua egongo da arriskua". Horregatik, kutsadurak saihesteko behar diren neurriak hartzea gonbidatzen ditu herritarrek. Era berean, herritarrei animoak helarazten dizkie: "Animo denei, hau ere pasako da eta bizitza normalera bueltatuko gara".



Ostadar SKTko futbol talde eta eskolaren entrenamendurik ere ez da izango hilabete hauetan. TXINTXARRI



Ziurtasun ezari aurre eginez

Itxialdia baino lehen, Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuan edo gimnasioan egunero ikusi ahal genituen Buruntzaldea IKTko kirolariak lanean. Egun kiroldegia itxita dago eta Buruntzaldea IKTko kirolariak etxean entrenatzen ari dira

Nerea Eizagirre

Buruntzaldea IKTko igerilariak uretan noiz murgildu zain daude. Zalantza ugari dago. Hala ere, etxean lanean dihardute igerilariak. Borja Apeztegia elkarteko arduradunarekin hitz egin dugu taldearen egoera zein den jakiteko.

Kirolari gehienek entrenamendu fisikoak egitearekin nahikoa dute forman mantentzeko, baina Buruntzaldea Igeriketa Kirol taldeko entrenatzaileak nabarmendu duenez, “igeriketa oso kirol espezifiko da eta urik gabe ezin da errendimendu maila bat mantendu”.

Etenak gainera, lehiaketa garrantzitsuak bertan behera geratzea ekarri zuen, Espainiko zein Euskal Herriko txapelketak, eta igerilariak epe laburrean finkatutako helburuak ezin gauzatzea ekarri du. Baina Apeztegiak “zikloi buruz hitz eginda, pertsona desberdinek izan ditzaketen helburuei

heltzeko oraindik ere badugu denbora eta egoera honek ere gauza onik izango duela uste dut”, atxiki du.

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak lau urteko zikloetan lan egiten duela azaldu du jarraian. “Guk epe luzera lau urtetako zikloetan egiten dugu lan, normalean olinpiar zikloetan eta ziklo horien amaieran egoten dira helburu nagusiak. Datorren denboraldia zikloaren hasiera berria litzateke eta beraz, bakoitza bere helburuetan, lanean hasteko momentu berri bat izango da”. Eta alde positiboa ere ikusten dio egoerari. “Momentu hau denboraldi-aurre luze bat egiteko erabiliko dugu ziurrenik”.

"IGERIKETA KIROL ESPEZIFIKOA DA ETA URIK GABE EZIN DA ERRENDIMENDU MAILA MANTENDU"

Izan ere, bada alde negatiborik. Alderdi teknikoak moldaketak egin behar izan ditu taldeak eta igeriketa taldeko hiru langileak ABEEE egoeran daudela jakitera eman du elkarteko arduradunak. Hala ere, teknikariak “borondatez” harremanetan daude eta egoeraren inguruan hausnarketak egin edo talde barruko dinamika sortzen laguntzen diote arduradunari.

Guztientzat dinamikak

Horrela, igerilariak aktibo mantentzeko helburuarekin maila federatuetako adin ezberdinetarako dinamikak sortu dituzte. Epe laburrean gainerako multzoekin ere, benjamin aurre, benjamin, alebin eta master maila, dinamikak “sortu edo hobetu” ahal izateko ideia eta planteamenduak egiten ari direla aurreratu du. “Helburua pertsona hauek aktibo mantentzea da, eserita edo etzanda egoteko ordu mordoa dute eta horrek gorputzaren aktibazio maila

asko jaisten du,” adierazi du Apeztegiak.

Taldeko kideak Facebook bidez ari dira lanean eta horretarako, bi talde sortu dituzte, bat publikoa txikiagoentzat eta bestea pribatua handiagoentzat. “Bertan egunero dinamika desberdinak planteatzen ditugu eta txikien taldeak martxa gutxiago duen arren, handiena oso dinamikoa da eta oso gauza politak ateratzen ari dira”.

Taldeak proposatzen dituen jardueraz gain, igerilariak beste batzuk euren kabuz egiten dituztela ere jakitera eman du, baita gehienek bizikleta erabiltzen dutela ere. Apeztegiak onartzen duen bezala, “momentu honetan guretzat gauza guztiek laguntzen dute eta esan bezala, garrantzitsua aktibo mantentzea dela uste dugu. Horrekin batera jarduera fisikoak egoera psikologikoan dituen onurak doaz eta, are gehiago taldean bideo-dei bidez egiten badugu”.

Taldean lan egitea garrantzitsua da Buruntzaldea IKTko arduradunarentzat. “Igeriketa banaka lehiatzen da baina hori denboraldiaren %5-10ean gertatzen da. Gainontzeko guztian talde kirola da, talderik gabe igeriketa ia ezinezkoa litzatekeela esatera ausartuko nintzateke”.

Horregatik, bideo-dei bitartez, azken urteko alebinekin, infantilekin, juniorrekin eta absolutuekin astean behin elkar ikusten saiatzen direla jakitera eman du Apeztegiak. “harremana nahiko konstante eta dinamikoa da. Batzuetan hitz egiteko elkartzen gara eta beste batzuetan zuzenean elkarrekin ariketak egiteko. Eta hori ere psikologikoki oso garrantzitsua dela uste dut”.

Horregatik, erronka ugari ere burutu dituztela onartu du, “Batzuk gizarte sareen bidez bideoz zabaldu ditugu beste batzuk oraindik ez, baina uste dut jarraian daramagun hirugarren astea dela”.

Zalantza ugari

Bestalde, egunean mantentzeko aktibitate handia izan du Buruntzaldea IKTk Gipuzkoako beste igeriketa klubekin, baita

Gipuzkoa zein Espainiako federazioarekin ere. “Herriko beste elkarteren batekin eta alderdi politiko desberdinekin ere izan dugu harremanik”.

Izan ere, beste kirol taldeen antzera, zailtasun handi batekin aurkitu baita talde, erabakiak hartzeko beharrezko den informaziorik ez izatea. Denboraldia etena dago, ez dakite noiz sartu ahal diren uretara, ezta udako denboraldia edo itsas zeharkaldiak egin ahal diren dituzten ere.

“Ziurtasun-gabezia handiz betea dago denboraldia, baina oraingoz uretara itzuli gaitezkeen data posibleak kontsideratuz egiten ditugu planteamenduak. Denboraldi amaiera atzeratu edo ez, horretarako lehiaketak erabili edo ez, itsas zeharkaldiei eutsi, denboraldia amaitutzat eman,... ziurra den ezer ez dakigunez oso zaila da, baina planteamenduak egiten ditugu”.

Horregatik, udako denboraldiak edo itsas zeharkaldien zirkuitua martxan jarritz gero, baldintza batzuk eman beharko liratekeela uste du Apeztegiak. “Aste batzuk lehenago kirolariak igeri egiteko aukera izan behar dutela, kiroldegia ireki edo igerilekua erabiltzeko aukera behar da, antolaketara baldintzak eta baimenak...”.

Eta puntu horiek gauzatzeko zalantza ugari dagoenez, Kirol elkarteak ekainean antolatzen duen Lasarte-Oriako Saria ere bertan behera geratu daitekeela onartu du. “Ezer baztertu ez badugu ez ere, oso zaila iruditzen zait aurtengo edizioa aurrera eramanez ahal izatea”.

Hau guztiaz gain, Buruntzaldea IKTk herritarrei animoak helarazi nahi dizkiete. “Gauza gehienak taldean eta taldearen laguntzaz lortzen da, gizarte bezala taldean hartzen ari garen neurri hauek guztiak bezalaxe. Zentzu horretan taldeko norbanakoaren papera ezinbestekoa da taldearen helburua erdiesteko eta horretan jarraitzeko animoak bidali nahi dizkiogu herritarrei. Egun bat gehiago egun bat gutxiago da!”

Elkarrikeria Espainiako Gobernuak konfinamendua arintze bidean emango diren pausoak argitara eman baino lehen egin zen eta horri buruz galdetu diogu Buruntzaldea IKTko arduradunari. Edizio hau itxi baino lehen ez dugu erantzunik jaso.

"ORAINGOZ URETARA BUELTATU GAITEZKEEN DATA POSIBLEEKIN EGITEN DUGU LAN"

Hiri-hondakinen bilketa datuak, "albiste txarra"

San Marko Mankomunitateak 2019an hiri-hondakinei buruzko datuen irakurketa egin du Eguzki Talde ekologistak. Lurpeko eta lur gaineko edukiontzien eztabaida utzi eta sistema eraginkorragoa ezartzeko eskaera egin dio Lasarte-Oriako Udalari

Txintxarri

San Marko Mankomunitateak 2019 urteko hiri-hondakinen datuak eskaini ditu, eta Eguzki talde ekologistak "Lasarte-Oriak birziklatzen azken putz izaten jarraitzen duela" salatu du. Datuen arabera, Lasarte-Oriak hiri-hondakinen %45 baino ez du gaika biltzen eta Donostiak bakarrik ditu datu okerragoak, %40,38.

Eguzkik "Donostiaren zamagatik, baita, neurri apalagoan izan arren, Lasarte-Oriaren zamagatik" San Marko Mankomunitatea Gipuzkoan gutxien birziklatzen duen mankomunitatea dela azpimarratu du. San Marko Mankomunitateko batz bestekoa %49,80koa da; Gipuzkoa osoko Mankomunitateetako, berriz, %57koa. Datu horiek ere ez dute egoera onean uzten Lasarte-Oria.

Gainera, 2018ko eta 2019ko emaitzak alderatuz gero, Lasarte-Oriak birziklapen tasan 1,5 puntu inguru behera egin duela jakitera eman du talde ekologistak. Datu horiek, ordea, ez dira batere harrigarriak talde ekologistaren ustez. Eta Einsteinek hitzez baliatu da Eguzki azalpena emateko: "Ez



espero emaitza desberdinik beti gauza bera egiten baduzu". Horrela, udal gobernua orain arte bezala "ahal den gutxien birziklatzea" erabaki duela salatu nahi du.

Eskaera udalari

Horregatik, hondakin bilketa egiteko sistema eraginkorrak ezartzeko eskaera egiten diote Udalari. Eguzkiren hitzetan, "ez dago inolako arrazoirik pentsatzeko Lasarte-Oriako herritarrok Urnietakoek edo Andoaingoek baino kontzientzia ekologiko handiagoa edo txikiagoa dugunik.

Aipatutako herri horietan, berriz, gaikako bilketa-tasa %70 eta %63ren gainetik dago, hurrenez hurren".

Era honetara, sistema eraginkorrak ezarri dituzten udalerriek, alkatetzan edozein alderdi izanda ere, emaitza onak lortu dituztela nabarmentzen du talde ekologistak.

Eta Lasarte-Oria sistema eraginkorrik ezarri ez dutenen paradigmaz du Eguzkik. "Gogora dezagun izan zela Gipuzkoako azken udalerrria, edo azkenetakoa, herritarrei hiri-hondakinen zatiki guztiak gaika biltzeko aukera eskaintzen. Eta eskaini zienean ere, berariaz hautatu zuen sistemarik kaxkarrena, gutxien birziklatzen zuena, alegia".

Talde ekologistaren ustez, Udal gobernua da hiri-hondakinen arazori buruz "kontzientziatu" behar den lehena. Neurri eraginkorrak behingoz hartu beharrean, lurpeko edukiontzien inguruko erreferendum bat bultzatzen ari dela salatzen du Eguzkik. "Lurpeko eta lur gaineko edukiontzien arteko eztabaida hain da faltsu eta zentzugabea, edonondik begiratu ere, ezen ez dakigun zer pentsatu. Bururatzen zaigun bakarra da despiste-maniobra bat dela Lasarte-Orian hondakinen inguruan dagoen benetako arazoari behingoz eta behar bezala ez heltzeko".



Xirimiri elkartearen aldeko manifestazio bat, 2015eko ekainekoa. TXINTXARRI

Xirimiriren bi kontu enbargatu ditu Auzitegi Nazionalak

Elkartasun ekintza bat antolatu du zuzendaritzak gaurko: post-it bidez adieraztea Xirimiri norberarentzat zer den

Txintxarri

Lasarte-Oriako Xirimiri da Herriko tabernen auzia kasuan auzipetutako elkarteetako bat. Berriki jakinarazi dute Auzitegi Nazionalak bi kontu enbargatu dizkiola, 2002an bertan zeukan diru kopuru berberarekin. Zuzendaritza batzordeak adierazi du bilatzen ari dela bazkideekin bilera bat egiteko modu bat, egun eta aste hauetan "informazioa bildu ahala".

Baltasar Garzon epaileak ireki zuen 35/02 sumarioa 2002. urtean, Herriko tabernen auzia izenez ezagutzen dena. Xirimiri elkartearen xedea da gaurko agindua eman zuen urte horretako maiatzean, eta kontuak blokeatzeko agindu. Gerora, Xirimirik ateak ireki zituen berriro, eta abokatuak helegitea jarri zion kontuak blokeatzeko erabakiari 2013-2014 ikasturtean,

baina Auzitegi Nazionalak ez zuen aintzat hartu. Auzitegi Gorenak 2015ean berretsi zuen Auzitegi Nazionalaren erabakia.

"Ez gaude geldirik"

Elkartasun ekintzak antolatzen ari da zuzendaritza batzordea. Xirimiriren kontuak enbargatuak izan zirela jakin eta berehala, deialdi bat zabaltu zuten sareetan: herritarrei eskatu zieten bidaltzeko argazki historikoak, zaharragoak eta berriagoak. Bideo-bilduma bat egin dute, hiru hamarkada hauetako historia erreperatuz.

Gaur, maiatzak 8, beste ekimen bat egingo dute. Okendo plazan dagoen tximinia moduko metalezko egituraren post-it batzuk itsastera gonbidatzen dituzte herritarrek: esplikatu behar dute beraientzat zer esan nahi duen Xirimiri elkarteak.

Birziklapen tasak

San Marko Mankomunitateko datuak

UDALERRIA	2018	2019
Astigarraga	76,56	74,1
Donostia	39,00	41,50
Errenteria	60,22	60,70
Hernani	76,77	74,70
Lasarte-Oria	46,63	45
Lezo	71,16	69,90
Oiartzun	74,29	70,90
Pasaia	54,35	55,50
Urnietak	70,42	70,60
Usurbil	82,59	80,80
Batz bestekoa	49,26	49,80

Aldarrikapen matazak

Konfinamenduan emakumeak jasaten ari diren indarkeriak ikusarazi eta salatzeko xedez, ehuntzeko deia zabaltzeko du Indarkeria Matxistaren kontrako Mataza Mugimenduak. Sortutako ehuna balkoitik balkoi zintzilikatzea da asmoa, biktimak inguru horretan laguntza eskatu dezakeela adierazteko. Zumaburuko hainbat bizilagunek bat egin dute ekimen horrekin.



TXINTXARRI



Maiatzaren 11tik aurrera terrazak ireki ahalko dituzte ostalariak, baina mahaien %50, gehien jota. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako ostalariak, babes eske

Herriko 60 tabernari baino gehiago elkartu dira, Covid-19ak eragindako egoerak sortutako ziurgabetasunari aurre egin eta hainbat ekimen antolatuzko: janari bilketa solidarioa egingo dute maiatzaren 11n, astelehenez, Gurutze Gorriaren eta udalaren laguntzarekin

Txintxarri

Koronabirusak eragindako egoeraren aurrean "ziurgabetasuna" bizitzen ari dira Lasarte-Oriako 50 taberna baino gehiago. "Gure jarduera utzi behar izan dugu, eta ez dakigu noiz itzuli ahal izango garen lanera, normaltasunez". Ateak itxi behar izatearen ondorioz, fakturazioan "beherakada

nabaria" izaten ari direla azpimarratu dute.

Lasarte-Oriako Udalaren aldetik "babesik gabe" ikusten dute euren burua tabernariak, erakundeak "aparteko neurririk" hartu ez duela salatuz: "Ulertzen dugu egoeraren kudeaketa ez dela erraza, baina uste dugu nahikoa denbora igaro dela gudan eragingo duten neurri batzuk hartzeko".

Gipuzkoako zenbait udalek pausuk eman dituztela jakinarazi dute. Ostalariak eta udala asteen bildu dira gaia lantzeko; datorren asteen elkartuko dira berriro.

Hauek dira ostalariak planteatzen dituzten eskaerak: orain arte mantendu diren udal zerga eta tasak ezabatzea, atzerapenik gabe –hondasun higiezin gainera,

zaborrena eta terrazena, besteak beste; ordainketa ezberdinei aurre egin ahal izateko, –agentziak, elektrizitatea, gasa, errenta– eta jarduera mantentzeko diru laguntzak bideratzea; eta tokiko kontsumoa sustatzeko kanpaina abiaraztea, merkaturatzeko ekintzen bidez.

"Salbuespen egoerak salbuespenezko neurri errealak eta eraginkorrak" eskatzen dituela ere nabarmendu dute, eta horregatik, ostalaritzaren etorkizuna bermatuko duen "berehalako konponbidea" eskatu diote udalari, ostalaritzaren sektorea bere aldetik "ahalegin ikaragarria" egiten ari baita krisi hori aurre hartzeko.

Janari bilketa solidarioa

Lasarte-Oriako ostalariak, udalarekin eta Gurutze Gorriarekin elkarlanean, ekintza solidario bat antolatu dute datorren astelehenerako, maiatzak 11: udaletxe berriko arkupeetan, 09:00etatik 21:00etara, janaria bilduko dute. "Garai gogorak dira, eta, ostalariez gain, dendari txikiak eta bizilagun ugari gaizki pasatzen ari dira".

Koronabirusak eragindako egoerak gogor kolpatu ditu herrian herriko denda eta negozioak, batez ere, 0 fasera arte euren atea ireki ezin izan dituztenak: tartean, ostalariak. Dena den, sektore horretako langileak kontziente dira merkataria eta herriko bizilagunek laguntza behar dutela, eta, horregatik, iragarri dute janari bilketa solidarioa egingo dutela datorren astelehenen, maiatzak 11, 09:00etatik 21:00etara, udaletxe berriko arkupeetan.

Ostalariak dei egiten diete herritarrek bilketarako

produktuak herriko komertzioetan erostera: "Gomendatzen dugu produktu horiek galkorrak ez izatea". Nabarmendu dute lasarteoriatar guztien elkartasuna behar dutela, "guztien artean aurrera ateratzeko". Lasarte-Oriako Udalak eta Gurutze Gorriak lagunduko diete datorren asteleheneko janari bilketarekin.

Ez dira gutxi herriko ostalariak azken egunetan jaso dituzten elkartasun mezuak. Covid-19ak eragindako egoeratik, sare sozial eta aplikazio digitalen bitartez jarri dira harremanetan herritarrek beraiekin, batez ere. Animo eta babes mezuak, noski, eta zenbait bideo ere bai: herriko kuadrilla batek, umorez eta orijinaltasunez, herriko zenbait tabernatan ateratako argazkiak bildu ditu ikus-entzunezko batean, erakusteko momentu on asko pasa dituztela bertan. Beste kuadrilla batek babes adierazi diete, Txapelpunk taldearen *Taberna* abestiarekin lagunduta. Zapi bat pasa dute ahoz aho –bakoitzak bere etxetik grabatu, eta gero muntatu dute–; tabernen izenak idatzi dituzte zapien.

**JANARI BILKETA
SOLIDARIOA EGINGO
DUTE ASTELEHENEN,
MAIATZAK 11,
HAMABI ORDUZ**

**HERRIKO 60 OSTALARI
BAINO GEHIAGO
ELKARTU DIRA, ETA
UDALAREKIN
ELKARTU ASTEON**

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Elizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Iratzi Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galarzi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Iñigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.


Lege Gordailua:

SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:





Antolakuntza batzordeak erabaki du 2020ko festak "betiko moduan ez ospatzea". Irudian, iazko Sorgin Jaien hasiera. TXINTXARRI

Bertan behera utzi dituzte aurtengo Sorgin Jaiak

Sorgin Jaien antolakuntza batzordeak erabaki du festak "betiko moduan ez ospatzea", koronabirusak eragindako egoeragatik. "Udalak egiten duena egiten duela, definitiboa da gure erabakia". Eztaibaida guneak martxan jarriko dituzte, alternatibak bilatzeko

Txintxarri

"Atsekabe eta ardura handiz", eta "asko" eztabaidatu ostean, Sorgin Jaien antolakuntza batzordeak erabaki du bertan behera uztea ekainaren 25etik 29ra antolatzen ari ziren egitaraua. "Gurea ez ezik, herritar guztien segurtasuna eta ongizatea bermatu nahi ditugu. Hori da arduratsua izatea, eta, horregatik, prest gaude erantzukizuna gure gain hartzeko". Nabarmendu dute momentua dela "elkarren zaintza erdigunean" jartzeko. "Koronabirusak eragindako egoerak lezioren bat eman badigu, hori izan da".

Hartu eta iragarri duten erabakia behin betikoa dela adierazi dute antolakuntzako kideek: "Herriitik eta herriarentzat egindako festak dira gureak, eta horregatik nahi dizuegu mezu hau ahalik eta lasterren bidali. Lasarte-Oriako Udalak hartzen duen erabakia hartzen duela ere,

Sorgin Jaiak ez da izango aurtengoa. Erantzukizunez eta arduraz jokatzeko unea da, ez erabakiak azken unera arte luzatu eta herritarren ziurgabetasuna elikatzea". Lasarte-Oriako Udalak sanpedroekin hartzen duen erabakia hartzen duela, beraz, Sorgin Jaien aurtengo egitaraua "bertan behera" geratu da.

"Ez gaude geldirik"

Antolakuntza batzordeko kideek iragarri dute, erabaki hori hartu badute ere, ez daudela geldirik: hasi dira pentsatzen ospakizunen bat prestatzea ekain amaierarako, edo, bestela, "urteko beste egun batzuetan elkarrekin topa" egitea. Bi bide

**ELKARREN ARTEKO
ZAINZA ERDIGUNEAN
JARTZEKO UNEA DELA
ADIERAZI DUTE
ANTOLATZAILEEK**

ireki dituzte egiten ari ziren lanketarekin jarraitzeko: batetik, eztabaidarako foro eta gune desberdinak sortu nahi dituzte, "gazte ikuspegitik" askotariko gaiei heltzeko; bestetik, bideo erronka batzuk zabalduko dituzte. "Herritar guztiak parte hartzera gonbidatzen ditugu". Bi bide horiek uztartu nahi dituzte, eta "horrenbeste urtetan lortutako guztia" ez ezabatu.

Datorren urtean, 2021.ean, Lasarte-Oriako Sorgin Jaiak hogeitaz beteko dituzte. Bi hamarkada, herrian jai alternatiboak egiten hasi eta festez eta herriaz gozatzeko beste eredu bat posible dela erakusten hasi zirenetik. Zifra borobil horretara iristean, datorren urteko ekainean, ikusi beharko da Sorgin Jaiak "betiko moduan" antolatzea eta ospatzea posible izango ote den edo ez. Gogo eta ilusiorik ez zaie faltako antolatzaileei eta herritar guztiei, hori ziur.

Rocioko Erromeriarik eta Aste Kulturalik ez aurtengoa

Semblante Andaluz elkarteak iragarri du bertan behera utziko dituela hurrengo hilabeteetako programa

Txintxarri

Koronabirusak eragindako egoerak hala eraginda, herriko zenbait eragile hasi dira datozten hilabeteetan egin asmo zituzten ekintzak bertan behera uzten. Semblante Andaluz elkarteak zuzendaritzak ohar bat kaleratu du, adierazteko bertan behera utziko duela 2020. urteko egitaraua.

"Uste dugu garrantzitsua dela herritarren osasuna bermatzea", adierazi du elkartearen zuzendaritza batzordeak. Epe motz eta ertainera begira egoera "guztiz"

aldatuko balitz, agian hartuko lukete ekitaldiren bat ospatzeko erabakia, baina "inolako arriskurik hartu gabe".

Erromeria eta Aste Kulturala

Rocioko Ama Birjinaren erromeria prestatzen hasiak ziren, aurtengo ekainaren 14an ospatzeko, ohi bezala, ekitaldi jendetsuekin: meza eta musika emanaldiak, esate baterako. Aste Kulturala izan ohi da Semblante Andaluzen beste ekitaldi garrantzitsuenetako bat: urriaren 6tik 12ra egin nahi zuten.



Rocioko erromeriarik ez dute ospatuko herritarrek aurtengoa. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Azkorteko erromeria, etxetik

Huts-hutsik zegoen igande goizean Azkorteko ermita. Koronabirusak eragin duen egoera tarteko, antolatzaileek bertan behera utzi dute aurtengo erromeria. Dena dela, Ttakun KEK bideo bat prestatu du, aurreko urteetako edizioetako une onenak bilduz: argazkiak eta bideo zatiak tartekatu ditu. Ikus-entzunezkoaz gozatu daiteke txintxarri.eus web orrialdean, Lasarte-Oria TB atal berezian.



Gozatzeko eguna

Herriko haurrentzat festa handia antolatu du Ttakun KEk

Apirilaren 26an Haurraren Egunaz gozatu dute milaka lasarteoriatarrek. Batez ere, etxeko txikienei, ordenagailu, mugikor eta bestelako pantailatik unean-unean txintxarri.eus atarian zintzilikatu genituen edukiak ikusten: txupina Porrotxen eskutik, buruhandien desfilea, diploma banaketa, kantu-jolasak, sukaldaritza errezetak, ipuin kontalaria eta erlaxazio saioa, zunba saioa, disko festa eta agurra. Egun horretan atera ahal izan zuten kalera aurreneko umeei, ordubetik; egunaren gainontzeko orduak azkar batean pasa zitzaizkien. Mozorro festa eta argazki lehiaketa ere antolatu zituen Ttakunek: hemen ikus ditzakezue parte-hartzaileek bidalitako irudi batzuk. Gozatu!



'Porrotxiki'-k irabazi du Haurraren Eguneako argazki lehiaketa. Zorionak! TXINTXARRI



'Haurrak gure txapeldunak' irakur zitekeen afixa koloretsu honetan. TXINTXARRI



Kaxkamaloren erraustak itzali arte zaindu zituen mamoxarroak. Aurretik, desfileak iraun artean, bidean topatutako herritarrek



Plaza eta parkeetan egin beharrean, leiho eta balkoieta zuten festa. TXINTXARRI



Familia honek ederki prestatu zuen etxea Haurraren Egunaz gozatzeko: globoak, irabiakiak, marrazkiak... TXINTXARRI